

Euskararen lehen idatziak

Euskararen lehen idatziak aipatzean, gehienek uste dute San Millan de la Cogolla-koak direla. Hango *Glosas* direlakoetan aurkitzen bai da: "izioqui dugu" (gaur egungo eraz, itxura denez, "izotu dugu" litzakena) eta "guec ajutu ez dugu" ("guk ez dugu aiutu" seguruaski). Baino, hori aipatzen den bakoitzean oroi Akitaniako erresuman arkitzen diren harri erromarrez, han latinarekin nahasturik inoiz hitz soilak, pertsona eta jainkoki izenak eta zerbaite gehiago agertzen bai da. Gainera, Akitaniatik, era bereko harri irargiak, Aragoi eta Nafarroaino zabaltzen dira, garai berean eta adibide polita dugu Nafarroako Lergakoa, non ager-

tzen den lehen mendeetan: "Ume sahar" ("ume zahar"), noski.

Antzinako iragarki hoien berri eman zigun Koldo Mitxelenak *Textos arcáicos vascos* (1964) deritzan liburuan, eta VME SAHAR han dator 19. orrialdean.

Gai bera zabalago lantzen du Joakin Gorrotxategik bere *Estudio sobre la cósmica indígena de Aquitania* (1984) liburuan, eta 287-288. orrialdeetan ikus daiteke aipatutako esaldia.

Aditzerak eman nahi honek ez du beste betekizunik maiz euskara eta gaztelera biak battean hasi zirela esaten dutenen argibiderako baizik.

Juan San Martin